

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, tokiko gobernu batzarrak, 2024ko uztailaren 18an, ohiko bilkuran, bestek beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena; **Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen 2024ko deialdian aurkeztutako eskaeren lehenengo ebazpena onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2024ko uztailaren 11ko proposamenak honela dio:

“ Unai Kortabarria (Sozioekonomia teknikaria eta batzordeko idazkaria) 2024ko uztailaren 10ean egindako ebazpen txostenak eta Sokioekonomia informazio batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“ Udaleko SOZIOEKONOMIA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:.....	2024ZDKO0019
Gaia:	Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzak.
.....	
Sarrera erregistroa:	2667, 4040, 4042, 4478

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen 2024ko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko apirilaren 8an, 67. Zb.)

Hirugarrena.- Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia kontuan izanda 2667, 4040, 4042 eta 4478 erregistro zenbakia duten eskaerak aztertu dira.

Gertakarien balorazioa.

Lehenengoa.- Aipatutako eskaerak aztertu ondoren jarraian zerrendatzen dira onartutako eskaerak eta bakoitzari dagokion dirulaguntza zenbatekoa:

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZB.	DIRULAGUNTZA				
			LAGUNTZA OINARRIA	JARDUN. %	BH-BH LAGUNTZA	%30 GEHIGARRIA	GUZTIRA
ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL	B56960115	2024Z DKO00 19/404 0	1.600€	%100	1.600€	-	1.600€
ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL	B56960115	2024Z DKO00 19/447 8	1.300€	%100	1.300€	-	1.300€

ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL enpresak aurkeztutako eta 4042 erregistro zenbakia duen eskaerari dagokionez, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu da, beraz, 1.600€ko dirulaguntza ematea proposatzen da; jardunaldi osoko lan kontratu mugagabea izateagatik 1.300€ eta kontratatutako pertsona emakumezkoa delako 300€ko gehiago.

ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL enpresak aurkeztutako eta 4478 erregistro zenbakia duen eskaerari dagokionez, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu da, beraz, 1.300€ko dirulaguntza ematea proposatzen da; jardunaldi osoko lan kontratu mugagabea izateagatik.

Bigarrena.- Bestalde, jarraian zerrendatzen diren eskaera hauen kasuan, dirulaguntza ukatzea proposatzen da eta horiek ukatzeko arrazoiak zehazten dira:

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZB.	UKATZEKO ARRAZIOIA
NEMESIO ZUBIA SA	A20075289	2024Z DKO00 19/226 7	Lanbideren Txanda-kontratuak egiteko laguntzekiko bateraezintasuna
ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL	B56960115	2024Z DKO00 19/404 0	Kontratutako pertsona ez dago Oñatin erroldatuta. Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntza oinarrien 4. artikulua a) puntuan .

NEMESIO ZUBIA SA enpresak aurkeztutako 2667 erregistro zenbakia duen eskaeraren kasuan, erantzukizunpeko adierazpenean adierazten den bezala, eskatzaileak Lanbideren Txanda-kontratuak egiteko laguntzak jaso ditu eta laguntza horiek ez dira bateragarriak kontratazio bera diruz laguntzea helburu duten beste kontratazio-laguntza batzuekin.

Lanbideko Txanda-kontratuak egiteko laguntzen 11.artikuluari honela jasotzen da hitzez hitz:

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasuna.

Deialdi honetan ezarritako kontratazio-laguntzak ezin izango dira bateratu beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta kontratazio bererako badira, erakunde honek zein beste erakunde publikoren batek eman arren, eta ez badira Gizarte Segurantzako kotizazioetarako.

Ondorioz, udaleko Sozioekonomia teknikariak bi dirulaguntzen arteko bateraezintasunaren inguruko informazioa eman dio eskatzaileari eta honek Oñatiko Udalaren Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntza atzera botatzeko eskaera aurkeztu du (erregistro zenbakia 3392)

ASEGIASESORIAS DURANGALDEA SL enpresak aurkeztutako 4040 erregistro zenbakia duen eskaerari dagokionez, kontratatutako pertsona ez dago Oñatin erroldatuta, beraz, ez da betetzen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen oinarrietako 4. artikuluan a) puntuan ezarritako baldintza.

Hirugarrena.- Onartzea proposatutako dirulaguntzen ordainketa egiteko jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1000.480.241.04.01 2024 (5191) diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, goian aipatutako dirulaguntza eskaerak onartzea eta ukatzea proposatzen diot Tokiko Gobernu Batzordeari.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0019-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)